

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsak gauzatzeko Iruzzarren Aurkako Neurrien Plana

Zumaiako Udala



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO
DE ESPAÑA



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia



Zumaiako Udala

BERTSIOEN KONTROLA

Bertsioa	Data	Aldaketa nagusiak
1.0	2023-03-30	Sorrera eta onarpena

Edukia

1.	Sarrera.....	6
1.1.	Testuingurua	6
2.	Planaren hartzaileak.....	8
3.	Aplikatu beharreko araudia	9
4.	Glosarioa	12
5.	Iruzurraren Aurkako Plana	15
6.	Iruzurraren Aurkako Batzordea.....	16
7.	Interes-gatazkak.....	18
8.	Oparien politika eta balizko onurak	22
9.	Prebentzioko eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko neurriak	23
9.1.	Sarrera.....	23
9.2.	Prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena: iruzurraren aurkako zikloa	24
9.3.	Prebentzioa	24
9.4.	Detekzioa	27
9.5.	Zuzenketa	29
9.6.	Jazarpena	29
10.	Estatu-laguntzak eta finantzaketa bikoitza	30
11.	Barneko salaketa-kanala	31
11.1.	Sarrera.....	31
11.2.	Helburuak.....	31
11.3.	Jarduketa-eremua	32
11.4.	Jakinarazpenak jarraitzea.....	32
11.5.	Konfidentzialtasunaren bermea.....	33
11.6.	Salatzailearen eskubideak.....	33
12.	Datu pertsonalen babesa	34
13.	Onestea eta ikuskatzea	35
14.	Publizitatea.....	36
II.	ERANSKINA - INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)	40
III.	ERANSKINA - INTERES-GATAZKARI ETA IRUZURRAREN ETA USTELKERIAREN PREBENTZIOARI BURUZKO AUTOEBALUAZIO-TESTA	42
IV.	ERANSKINA - ETIKA ETA JOKABIDE KODEA	44
V.	ERANSKINA - ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)	49
VI.	ERANSKINA - ESTATUKO LAGUNTZEN ERREGIMENAREN BATERAGARRITASUNERAKO ETA FINANTZAKETA BIKOITZA SAIHESTEKO TESTA	61
VII.	ERANSKINA - INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENAREN GUTXIENENKO EDUKIA (tresna informatiko batean oinarrituta, SEEP egikaritzen duten prozeduretan)	63
VIII.	EREDUA - INTERES-GATAZKARIK EZA BAIEZTATZEKO EREDUA.....	65

IX. ERANSKINA - LEHIA MASIBOKO DIRULAGUNTZAK EMAN BEHAR DIREN PROZEDURETAN INTERES-GATAZKAREN ARRISKUA AZTERTZEKO ESKAERAK HAUTATZEKO ARAUAK.....	66
X. ERANSKINA - JARDUKETAK EGIKARITZEAREN GAINEKO KONPROMISOARI BURUZKO ADIERAZPENA (DNSH)	67
XI. ERANSKINA – IRUZURRAREN ARRISKUAK EBALUATZEA	68

SIGLEN ETA LABURTZAPENEN ZERRENDA

Finantzaketa-akordioa	2021eko 6an Batzordearen eta Espainiaren artean sinatutako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Finantzaketa Akordioa
Batzordea	Iruzzurraren Aurkako Batzordea
Udala	Zumaiako Udala
Zuzentaraua	2017/1371(EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko uztailaren 5ekoa, Zuzenbide Penalaren bitartez Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa.
OLAF	Iruzzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa
SEM	Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa
SEEP	Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana
REACT-UE	Kohesiorako eta Europako Lurraldeak Suspertzeko Laguntza
EGEF	Europako Eskualde Garapenerako Funtsa
FEAD	Pertsona behartsuentzako Europako Laguntza Funtsa
EGF	Europako Gizarte Funtsa
IGEA	Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena
ELGA	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
Kodea	Etika eta Jokabide Kodea
EBFT Tratatua	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko

1. Sarrera

1.1. Testuingurua

2020ko ekainaren 21ean, Europako Kontseiluak NextGeneration EU programa sortzea onartu zuen, suspertze ekonomikorako eta COVID-19aren pandemiak eragindako kalteei erantzuteko. Funtsok Europar Batasuna ekologikoagoa, digitalagoa eta etorkizuneko aldaketa erronken aurrean erresilienteagoa izateko bultzada ematen dute.

Programak bi finantzaketa-tresna jasotzen ditu:

- Batetik, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (aurrerantzean, era berean, “SEM”) erreforma eta inbertsio publikoak egitera bideratuta.
- Bestetik, Kohesiorako eta Europako Lurraldeak Suspertzeko Laguntza (aurrerantzean, era berean, “REACT-UE”), krisiari erantzuteko eta konpontzeko neurriak zabaltzen dituen. Laguntza hori Europako Eskualde Garapenerako Funtsaren (aurrerantzean, era berean, “EGEF”), Europako Gizarte Funtsaren (aurrerantzean, era berean, “EGF”) eta Pertsona behartsuentzako Europako Laguntza Funtsaren (aurrerantzean, era berean, “FEAD”) bitartez gauzatzen da.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (aurrerantzean, era berean, “SEEP”) 2021eko uztailaren 13an onartu zuen Europar Batasuneko Kontseiluak, eta gauzatuko diren inbertsioen multzoa eta egiturazko zein legegintzako aurreikusitako erreformen programa jasotzen ditu.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak, finantzaketa-kudeaketa onaren printzipioarekin bat, ezartzen du estatu kideek Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko neurri egokiak jasoko dituen sistema bat diseinatu beharko dutela aurkeztutako suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planetan. Besteak beste, interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzendu beharko dituzte, bai eta emandako funtsak erabiltzean ustelkeria eta iruzurra ere.

2021eko irailaren 30ean, BOEn **HFP/1030/2021** Ministerio Agindua argitaratu zen. Horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitako neurrien barruan dauden proiektuak eta azpiproiektuak definitu, planifikatu, gauzatu, jarraitu eta kontrolatzera bideratutako **kudeaketa-sistema bat zehaztu** eta **garatu** behar dute.

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, SEEPren kudeaketa-sistema osatzen duenak, jarraian zehazten diren baldintza batzuk ezartzen ditu, funtsen kudeaketan Europar Batasunaren aurrekontuaren osotasuna bermatzen dela ziurtatu ahal izateko beharrezkoak direnak.

Zumaiako Udalak (aurrerantzean, “Udala” edo “Erakundea”, berdin-berdin) Iruzuraren Aurkako Plan hau egin du, zehazki HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua betetzeko. Artikulu horrek, hain zuzen, honako hau adierazten du: “(...) SEEPren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, dagokion jarduera-eremuan dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatu eta adierazi ahal izateko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.”

Horren harira, Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana iruzurra eta interes-gatazkak kudeatzeko helburuarekin garatzen da, iruzurraren aurkako neurriak modu proportzionatuan eta “iruzurraren aurkako zikloaren” funtsezko lau elementuren inguruan (prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena). Udalak konpromisoa hartzen du iruzurrarekin eta interes-gatazkekin “zero tolerantzia” izateko politika gauzatzeko.

Iruzuraren Aurkako Neurrien Planak aurreikusten du iruzurraren arriskuaren, haren inpaktuaren eta probabilitatearen ebaluazioa egiteko, bai eta aldizkako berrikuspena ere.

Era berean, prebentzioko neurri egokiak eta proportzionatuak zehazten dira hondar-arriskua maila baxuagoetara murrizteko, bai eta detekzio-neurriak ere, iruzurra izateko kasu susmagarri bat detektatzen denean aktibatzen diren alertak eta neurri zuzentzaileak jasotzeko.

Plan honek iruzur-kasu susmagarrien jarraipena egiteko prozesuak ezartzen ditu eta prozesuak, prozedurak eta kontrolak berrikusteko jarraipen-prozedurak ere bai.

Azkenik, Iruzuraren Aurkako Neurrien Planak interes-gatazkak prebenitzeko eta zuzentzeko prozedurak zehazten ditu. Zehazki, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) jasotzen du, hierarkian goian dagoenari interes-gatazka egon daitekeela jakinarazteko konpromisoa eta Udalean dagozkion erabakiak hartzeko konpromisoa.

Horregatik guztiagatik, planaren funtsezko helburuak honako hauek dira: iruzurraren agerpena murriztea, bai barnekoa bai kanpoko, iruzurraren arrisku nagusiei helduz eta iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuak kontuan hartuz: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena; interes-gatazka saihestea eta haren garrantziaz sentsibilizatzea eta dagozkion prebentzio, detekzio eta zuzenketako neurriak ezartzea; eta Europaren finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzea.

2. Planaren hartzaileak

Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana nahitaez bete behar dute Udalean lan egiten duten langile guztiek.

Bereziki, SEEPren eta Europar Batasuneko beste funts batzuen proiektu eta jarduketan esparruan kudeaketa-, jarraipen-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituztenek, baldin eta Udala bada lan horien erakunde betearazlea.

Halaber, Planaren neurriak aplikatu behar zaizkie, dagokien derrigortasun-mailarekin, erakunde eta pertsona onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei, baldin eta hartzaileak badira edo haien jarduketak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik eta Europar Batasuneko beste funts batzuetatik eratorritako funts publikoekin finantzatzen badira.

Ez-betetzeak Udalaren barne-araudiaren eta aplikatu beharreko lege-araudiaren arabera zehatuko dira.

Iruzuraren Aurkako Neurri Plan hau udal erakundeari zein haren erakunde autonomoei, enpresa-erakunde publikoei, sozietate publikoei eta mendeko fundazioei aplikatuko zaie.

3. Aplikatu beharreko araudia

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua, eta horri jarraikiz, irailaren 29ko HPF/1030/2021 Agindua Espainia behartzen du, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko ezartzen dizkion betebeharrak betetze aldera eta SEMren diru-funtsen onuradun gisa, SEEPren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzailerik edo betearazle orok «Iruzuraren Aurkako Plan bat» edukitzera.

Plan horren helburuak dira funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabiltzen direla bermatzea, eta, bereziki, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzio, detekzio eta zuzenketa egokia dagoela.

Aplikatu beharreko araudiaren artean, hauek azpimarratu behar dira:

Europako araudia

- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena, eta hura garatzeko gainerako araudia.
- 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu dakizkion finantza-arauei buruzkoa (EBren Finantza Erregelamendua). EBAO, 2018ko uztailaren 30ekoa, 193. zk.
- 2017/1371(EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko uztailaren 5ekoa, Zuzenbide Penalaren bitartez Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa (PIF Zuzentaraua). EBAO, 2017ko uztailaren 28koa, 198. zk.

Estatuko araudia

- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazteko premiazko neurriak onartzen dituena.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-egikaritzea eta mugari eta helburuak betetzearen jarraipenerako Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen duena.
- TMA/892/2021 Agindua, abuztuaren 17koa, Hiri-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarrirako eta emisio txikiko eremuak ezartzeko udalerrientzako laguntzen programarako oinarri arautzaileak onartzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta 2021eko ekitaldiko deialdia onartu eta argitaratzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), (64. art.)
- 2021eko abenduaren 23ko Instrukzioa, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatu diren kontratuen plegu gidarrietan eta espedienteetan sartu beharreko alderdiei buruzkoa.

Bestelako araudia

- Iruzur-arriskuaren ebaluazioa eta iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak (DG REGIO) EGESIF_14-0021-00; 2014/06/16 (Guidance Note on fraud risk assessment for 2014-2020). Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 125.4.c) artikulua aplikatzeko garatutako gida. Erregelamendu horrek Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsari eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen komunak ezartzen ditu, baita Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen orokorrak ere, eta Kontseiluaren 1083/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen du.

https://ec.europa.eu/regional_policy/es/information/publications/guidelines/2014/fraud-risk-assessment-and-effective-and-proportionate-anti-fraud-measures.
- Batzordearen komunikazioa (2021/C 121/01) - Finantza Erregelamenduaren arabera interes-gatazkak saihesteko eta kudeatzeko moduari buruzko orientabideak.

[https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409(01)&from=ES).
- OLAF Compendium of Anonymised Cases – Structural Actions (Kasu anonimoen bilduma: egiturazko ekintzak).

<https://ec.europa.eu/sfc/sites/default/files/sfc-files/OLAF-Intern-2011.pdf>
- OLAF practical guide on conflict of interest (interes-gatazkari buruzko gida praktikoa).

<https://ec.europa.eu/sfc/sites/default/files/sfc-files/guide-conflict-of-interests-ES.pdf>
- OLAF practical guide on forged documents (dokumentuak faltsutzeari buruzko gida praktikoa).

<https://www.interreg-croatia-serbia2014-2020.eu/wp-content/uploads/2019/05/Guide-on-forged-documents.pdf>
- 1/2017 Komunikazioa, apirilaren 6koa, Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarena, Europar Batasuneko funtsek osorik edo zati batean finantzaturako proiektu edo operazioei lotutako ustezko iruzur edo irregulartasun egitateen egintzen jakinaren gainean dauden pertsonen jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-es/snca/Documents/ComunicacionSNCA06-04-2017Canaldenuncias.pdf>.
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearaztean iruzurraren aurkako neurriak aplikatzeko gida, Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarena, 2022ko otsailaren 24koa.

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Documents/20220224%20Gu%C3%ADa%20Medidas%20Antifraude.pdf>
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.

[- BOE.es - BOE-A-2023-2074 HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.](https://www.boe.es/BOE-A-2023-2074/HFP/55/2023/Agindua%20urtarrilaren%2024koa%20Suspertze%20Eraldatze%20eta%20Erresilientzia%20Plana%20gauzatzen%20duten%20prozeduretan%20interes-gatazkaren%20arriskua%20sistematikoki%20aztertzeari%20buruzkoa)

- Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduak onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki eta automatizatuki aztertzeko prozedura berriari buruzko informazio-oharra.

4. Glosarioa

Iruzuraren Aurkako Plan honi honako definizio hauek aplikatuko zaizkio: 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa (PIF Zuzentaraua), eta 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa (EBren Finantza Erregelamendua).

Iruzurra

- a) Kontratu publikoekin zerikusirik ez duten gastuen arloan, honako hauei buruzko edozein ekintza edo ez-egite:
- Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak edo bere izenean administratutako aurrekontuetako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea edo funtsik gabe atxikitzea dakarten adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea.
 - Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea.
 - Funts edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako behar ez bezala erabiltzea.
- b) Kontratu publikoekin lotutako gastuei dagokienez, egilearentzat edo beste pertsona batentzat legez kontrako irabazi-asmoz egiten direnean, honako hauei buruzko edozein ekintza edo ez-egite:
- Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak edo bere izenean administratutako aurrekontuetako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea edo funtsik gabe atxikitzea dakarten adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea.
 - Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea. Edo
 - funts edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako erabiltzea, Batasunaren finantza-interesei kalte egiten badie.
- c) BEZaren baliabide propioetatik datozen diru-sarrerak ez diren beste diru-sarrera batzuen arloan, honako hauei buruzko edozein ekintza edo ez-egite:
- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak administratutako aurrekontuetako edo haren izenean jarritako aurrekontuetako baliabideak legez kanpo murrizten badira.
 - Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea. Edo
 - legez lortutako onura bat ondorio berarekin bidegabe erabiltzea.
- d) BEZaren baliabide propioetatik datozen diru-sarreraren arloan, mugaz gaindiko iruzurrezko sare batean egindako edozein ekintza edo ez-egite, honako hauei dagokienez:
- BEZari buruzko adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, Batasunaren aurrekontuko baliabideak gutxitzea dakartenak.
 - Eragin bera duen BEZari buruzko informazioa jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea. Edo
 - BEZaren aitortpen zuzenak aurkeztea, ordainketa ez betetzea edo BEZa itzultzeko eskubidea legez kontra sortzea iruzur eginez disimulatzeko.

Ustelkeria aktiboa

Zuzenean edo bitartekari baten bidez funtzionario bati edozein motatako abantaila agintzen, eskaintzen edo ematen dion pertsona ororen akzioa, funtzionario horrentzat edo hirugarren

batentzat, bere betebeharraren arabera edo bere eginkizunak betetzean Batasunaren finantza-interesei kalte egiteko edo kalte egin ahal izateko moduan jardun dezan edo jardun ez dezan.

Ustelkeria pasiboa

Funtzionario baten akzioa, zuzenean edo bitartekari baten bitartez, edozein motatako abantailak eskatzen edo jasotzen dituen, berarentzat edo hirugarrenentzat, edo abantaila baten promesa onartzen duena, jardun dezan, edo jarduteari uko egiten dionean, bere betebeharraren arabera edo bere eginkizunak gauzatzean, Batasunaren finantza-interesei kalte egiteko edo kalte egiteko moduan.

Interes-gatazka

Interes-gatazka egongo da funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik.

Interes-gatazka eragingo lukeen egoera kontuan hartuta, honako hauek bereiz daitezke:

- a) Itxurazko interes-gatazka: Udaleko enplegatu edo onuradun baten interes pribatuek bere funtzioen edo betebeharren egikaritza objektiboa arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.
- b) Interes-gatazka potentziala: Udaleko enplegatu edo onuradun batek horrelako interes pribatuak dituenean sortzen da, eta interes horiek interes-gatazka sor dezakete etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.
- c) Interes-gatazka erreala: Udaleko enplegatu baten betebeharraren publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, eta Udaleko enplegatuak interes pertsonalak ditu betebeharraren eta erantzukizun ofizialak modu bidegabean betetzeko. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharraren eta funtsen interes pribatuen artean, horiek modu bidegabean eragin baitezakete betebeharraren horiek betetzean.

Irregularitasuna

Europako Erkidegoko Zuzenbideko xedapen baten arau-hauste oro eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite bati dagokiona izango da irregularitasuna, baldin eta ekintza edo ez-egite horrek erkidegoen aurrekontu orokorrari edo erkidegoek administratutako aurrekontuei kalte egiten badie, dela erkidegoen kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen diru-sarrerak murriztuz edo ezabatuz, dela bidegabeko gastu baten bidez.

Finantzaketa bikoitza

SEMren Erregelamenduaren 9. artikulua arabera, finantzaketa bikoitza sortzen da erreformak eta inbertsio-proiektuak Mekanismoak eta aldi berean Batasunaren beste tresna batek finantzatuta daudenean, kudeaketa partekatua edo zuzena duten programa guztiak barne hartuta, betiere gastu edo kostu bera betetzen badute.

Horri dagokionez, Finantzaketa Erregelamenduak berariaz ezartzen du 188. Artikuluan finantzaketa bikoitzaren debekua, dirulaguntzei aplikatu dakiekeen printzipio orokor gisa, eta 191.3 artikuluan honako hau adierazten du: "Inola ere ezingo dira gastu berberak aurrekontuaz birritan finantzatu".

Gainera, Suspertze Planak finantzaketa bikoitzaren kontzeptua handitu egin du Mekanismoaren finantzaketarekin dirulaguntza nazionaletatik datozen funtsen aldiberekotasunera (Planaren 4.6.1 apartatuaren bigarren paragrafoa).

Kudeaketako barne-kontrola

Suspertze Planaren testuinguruan, kudeaketako barne-kontrola honela defini daiteke: erakunde erabakitzailleek eta betearazleek eragiketen legezkotasuna bermatzeko, mugarriak eta helburuak betetzeko eta finantza-kudeaketa onaren printzipioak aplikatzeko ezarritako prozedura, praktika eta neurrien multzoa. Azken horiek, era berean, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko eta finantzaketa bikoitza saihesteko neurriak jaso behar dituzte, baita arrisku horien ebaluazioa ere.

5. Iruzurraren Aurkako Plana

Zumaiako Udalak bere jardueren esparruan iruzur-, ustelkeria- edo eroskeria-ekintzak egiteko aukerak gutxienekora murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromisoa adierazten du. Zumaiako Udalaren kudeaketaren printzipio gidariak osotasuna, gardentasuna, objektibotasuna eta inpartzialtasuna dira, eta, beraz, prebentzio, detekzio, zuzenketa eta jazarpeneko barne-mekanismo eta -politika espezifikoak egiteko konpromisoa hartzen du.

Politika honen helburua Udalaren iruzurraren aurkako neurriak modu proportzionatuan eta iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuen inguruan egituratzea da: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Politika honen helburu nagusiak hauek dira:

- Politika jarraitzeko arduradunak definitzea.
- Langile eta organo erabakitzaile guztien aldizkako prestakuntza eta sentsibilizazioa ezartzea.
- Salaketa-kanala kudeatzearekin lotutako prozesuak eta eredu bat arautzea.
- Gauzatzen diren arriskuen jarduketa-protokolo gertagarri bat ezartzea.
- Interes-gatazkak identifikatzeko, detektatzeko eta kudeatzeko aukera emango duen Kode Etiko bat garatzea.
- Ez-betetzeak detektatzeko mekanismoak finkatzea eta alerta gorrietan oinarrituta (bandera gorriak) arriskuen adierazleak ezartzea.
- Arriskuak ebaluatzeko tresna egokiak finkatzea, aldeztu aurretik erakundearen jarduneremu nagusietako arriskuen autodiagnostikoa eginda, kalteberatasun-maila zehazteko, arriskuak gauzatzeko probabilitatea murrizteko, eta, halakoak gertatzen direnean, inpaktua minimizatzeko aukera emango dutenak.
- Erakundeen osotasun-sistema etengabe hobetzea, aldizka eta helburuak lehenesteko mekanismo malguak.
- Dilema etikoen eta kontsulten aurreko orientazioa zehaztea.

Udalak konpromisoa hartzen du edozein arrisku penal gauza daitekeen eremuko jarduerak identifikatzeko, eta, zehatz-mehatz, iruzurrarekin, ustelkeriarekin eta eroskeriarekin lotutako arriskuak. Horri dagokionez, iruzurraren aurkako borrokari buruzko adierazpen instituzionala erantsi da (**I. eranskina**). Adierazpen horren bidez, Udalak iruzurraren eta ustelkeriaren erabateko gaitzespena azaltzen du, eta kalitate juridiko, etiko eta moral gorena izateko konpromisoa hartzen du, bai eta osotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta zintzotasun printzipioekin bat gobernatzeko konpromisoa ere.

Udalak iruzurraren arriskua, inpaktua eta probabilitatea ebaluatuko ditu, eta bi urtean behin berrikusiko ditu, eta, nolana ere, iruzur-kasuren bat detektatu denean, bai Udalean bertan, bai Udalean errepika daitezkeen beste udal batzuetan izandako iruzur-kasuen berri izaten denean ere (ustelkeria- edo iruzur-zantzurik izanez gero) edo araudian, prozeduretan edo langileetan aldaketa nabarmenak gertatzen direnean.

Arau-esparruan Udalak neurriak diseinatzean homogeneotasuna lortzeko asmoz, **III. eranskinean** interes-gatazka, iruzurraren prebentzioa eta ustelkeria autoebaluatzeko test bat jaso da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan jaso. Test honen helburua da SEEPren eta Europar Batasuneko beste funts batzuen organo betearazleek aplikatutako prozeduraren autoebaluazioa erraztea, ezarritako printzipioak behar bezala betetzearekin lotuta.

6. Iruzuraren Aurkako Batzordea

Iruzuraren Aurkako Batzorde bat sortu da (aurrerantzean, “Batzordea”), eta hori da prebentzioaren, detekzioaren eta zuzentzearen arloan iruzurraren aurkako neurriak behar bezala aplikatzeko arduraduna.

Independentziaz eta inpartzialtasunez jardun beharko du, eta bere lana ardura eta konpetentzia profesional handienarekin gauzatu.

Osaera

Iruzuraren Aurkako Batzordea idazkari batek, kontu-hartzaile batek eta xede horretarako izendatutako beste arlo batzuetako arduradunek osatuko dute.

Zereginak

Iruzuraren Aurkako Batzordeak zeregin hauek izango ditu:

- 1) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa gauzatzean eragiten duten arriskuekin lotuta, prebentzio, detekzio eta zuzentzeko neurriak erregulariki funtzionatzen dutela eta behar bezala aplikatzen direla gainbegiratzea eta ebaluatzea, arriskuen ebaluazioa barne, eta ahultasunak detektatzea eta ekintzak proposatzea.
- 2) Iruzurarekin, ustelkeriarekin, interes-gatazkekin eta finantzaketa bikoitzarekin lotuta egindako kudeaketako barne-kontrolen eraginkortasuna gainbegiratzea, hobekuntzak proposatzeko edo sortutako premia berrietara egokitzeak.
- 3) Arrisku berezia dakarten eta jakinarazten zaizkion arloak, egoerak edo kasuak aztertzea eta ebaluatzea, eta horiek hobetzeko ildoak eta gomendioak ezartzea.
- 4) Interes-gatazkak kudeatzeko prozedurak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea.
- 5) Kudeaketako barne-kontrolako eta arriskuen ebaluazioko zereginak betetzen dituzten unitateei aholkularitza ematea, arauak, helburuak eta, oro har, iruzurraren aurkako neurriak hobeto betetzeko.
- 6) Arriskuari buruzko aldizkako ebaluazioak gauzatzen direla bermatzea, horretarako irizpide eta ildo orokor eguneratuak ezarriz.
- 7) Egindako barne-kontrolen eta arriskuen ebaluazioaren euskarri-dokumentazioa badagoela egiaztatzea, eta iruzurraren aurkako neurri zuzentzaileak ezartzearen jarraipena egitea.
- 8) Ezarri beharreko ekintzen edo iruzurraren aurkako politika hobetzeko gomendioen berri ematea erakundeko administrazio-organo gorenari edo haren baliokideari.
- 9) Barneko kudeaketa-sistema egitean eta arriskuen ebaluazioan parte hartzea edo ildoak ezartzea, adibidez, zereginak eta erantzukizunak banatzearekin eta ezartzearekin, eta hainbat arlo edo sailtan gauzatu beharreko ekintza-planak egitearekin eta berrikusteearekin lotuta.
- 10) Langileek behar diren ezagutzak dituztela eta informazioa jasotzen dutela bermatzea, bere jardun-eremu espezifikoan, iruzur, ustelkeria, interes-gatazka eta finantzaketa bikoitzeko arriskuekin lotutako ekintzak gauzatu ahal izateko.
- 11) Iruzur, ustelkeria, interes-gatazka eta finantzaketa bikoitzeko arriskua izan dezaketen kasuak erakundearen barruan eta kanpoan jakinarazteko prozedura argia dagoela bermatzea, eta prozedura hori langileen artean zabaldua dagoela ziurtatzea.
- 12) Egitateak organismo eskudunei igortzen zaizkiela ziurtatzea, jakinaren gainean egon daitezkeen eta zeha ditzaten, arau-hauste penal edo administratiboak izan daitezkeen egitateak detektatzen direnean.
- 13) Aurreko paragrafoan aipatzen diren organo eskudunei jakinarazi zaizkien kasuen jarraipena egiteko eta iruzur eginez gastatutako Batasunaren funtsak berreskuratzeko prozedura martxan jarri dela ziurtatzea.
- 14) Iruzuraren aurkako arloan harremanetarako unitatea edo agintaria izatea.

Helburu hori betetzeko, Batzordeak behar duen adina informazio eta dokumentazio bildu ahal izango du, eskatutako pertsonaren hierarkia-maila gorabehera.

Batzordeak sekretupean izango ditu bere deliberazioak eta akordioak, eta, oro har, ez ditu ezagutaraziko kargua betetzeagatik eskuratzen dituen informazioak, datuak, txostenak edo aurrekariak. Era berean, ez ditu norberaren edo hirugarrenen mesederako erabiliko.

Batzordeak jasoko ditu salaketak eta kontsultak, eta politika honetan adierazitakoaren arabera dagokion izapidea emango die. Irregularitasunaren egiazkotasuna eta zehaztasuna egiaztatuko ditu, eragindako guztiei eta lekukoei entzunaldi-izapidea egingo die, eta beharrezkotzat jotako eginbide guztiak egingo ditu. Plan honen mende dauden guztiek leialki lagundu beharko dute ikerketan. Lekukoen eta eragindakoen esku-hartzea konfidentziala izango da.

Ikerketa eta egitateen egiaztapena amaitu ondoren, Batzordeak, ahalik eta lasterren, balorazio-txosten bat egingo du. Agiri horretan, txostenaren ondorioak eta proposamenak jasoko ditu. Txostena gaiaren arabera eskumena duen organoari helaraziko dio, eta egindako jarduketak eranskin gisa jasoko ditu.

7. Interes-gatazkak

Sarrera

Interes-gatazkak erabakiak hartzean eremu desberdinetan gerta litezke, eta maila profesionalean erakunde pribatuetan eta publikoetan planteatu daitezke. Dena den, bereziki garrantzitsuak dira erakunde publikoak direnean.

Erakunde publikoak gobernu onaren eta administrazio onaren irizpidepean kudeatu behar dira. Administrazio ona herritarren oinarrizko eskubide bat da, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideei buruzko Gutunaren (2000) 41. artikulua arabera: *“Pertsona orok Batasuneko instituzioek, organoek eta erakundeek beren gaiak inpartzialtasunez eta berdintasunez tratatzeko eskubidea du”*.

Nazioarte-mailan, interes-gatazkei buruz hitz egiten du Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) *“Zerbitzu publikoan interes-gatazkak kudeatzeko gidalerroak”* izeneko agiriak. Agiri horrek interes-gatazka honako moduan definitzen du: *“Eginkizun publikoaren eta funtzionario baten interes pribatuen arteko gatazka, zeinetan funtzionarioak interes pribatuak dituen eta eragin kaltegarria izan dezakeen bere eskakizunen funtzionamenduan eta erantzukizun ofizialetan”*.

Europar Batasunaren esparruan interes-gatazkaren beste definizio bat Batasuneko aurrekontu orokorrean aplikatu beharreko finantza-arauei buruz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduan ageri da: *“Finantza-erakundeek eta gainerako pertsonak, zuzenean, zeharka eta partekatuta, aurrekontua gauzatzen parte hartzen dutenean, bai eta kudeatzen dutenean (prestakuntza- edo kontrol-egintzak barne) ere, beren funtzioak inpartzialtasunez edo objektibotasunez bete gabe zenbait arrazoitan funtsatuta: familia, arrazoi afektiboak, afinitate politikoa edo nazionala, interes ekonomikoa edo bere intereseko edozein zuzeneko edo zeharkako arrazoi”*.

Barne-araudian, besteak beste, interes-gatazkaren definizioa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71.1 artikulua g) letran aurreikusten da, hain zuzen ere, kontratatzeke debekua xedatzen duenean: *“Debekuak berdin hartzen ditu, bi kasuetan, aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen ezkontideak, bizikidetzak afektiboz horien antzeko lotura daukaten pertsonak, aurrekoak eta ondorengoak, bai eta bigarren mailako odol- edo ezkontza-ahaideak ere, baldin eta interes-gatazka sortu bada kontratazio-organismoaren titularrarekin edo kontratatzeke ahalmena delegatua duten organoetako titularrarekin edo kontratazio-organismoaren titularraren ordezkarekin”*.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzeko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak azaltzen du interes-gatazkak honako ezaugarri hauek dituela:

- a) Europar Batasuneko erakunde guztietan administrazio- eta eragiketa-partida orori eta kudeaketa-metodo guztiei aplikatuko zaie.
- b) Zuzeneko edo zeharkako edozein interes pertsonalera zabaltzen da.
- c) Balizko interes-gatazka izan daitekeenari aurre egiteko jardun behar da.
- d) Nazioko agintariek, edozein mailatan, balizko interes-gatazkak saihestu eta/edo kudeatu behar dituzte.

Lehen eman diren definizioak oinarritzat hartuta, interes-gatazka izango dugu Udaleko langileak interes pertsonal bat duenean, bai zuzeneko eta norberarena, bai zeharkakoa edo beste pertsona baten bidez, baldin eta bere eginbeharrak betetzea eragozten badu eta bere independentzia edo objektibotasuna zalantzan jartzen badira.

Udalaren kontura ez ditu ekonomia-, finantza- edo ondare-betebeharrak onartuko, ez eta negozioen arloko gaiak ere, pertsonak edo erakundeak bere lanpostu publikoan gatazka-arriskua sor badezakete. Era berean, ez du kontratazio-prozeduratan parte hartuko interes-gatazkak planteatzen badira.

Interes-gatazka izango da Udaleko langileak bere zereginak betetzean onura orokorraren gainean interes pertsonalei eragiten dizkieten erabakiak hartzen dituenean.

Interes pertsonalen barruan sartuko dira bere interesak, familiarenak, auzigaiak dituzten pertsonak, adiskidetasun estua edo etsaitasuna duten pertsonak eta lan-harremanaren edo erlazio pertsonalaren bidez lotutako pertsona juridikoak edo erakunde pribatuak.

Nahasitako subjektuak

Interes-gatazkan honako subjektu nagusi hauek nahasita egon daitezke:

- a) Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-zereginak dituzten langile publikoak eta beste eragile batzuk, halako funtzioen bat eskuordetu badiete.
- b) Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, jarduketak funtsekin finantzatzen badituzte eta beren interesen alde eta EBko finantza-interesen aurka jardun badezakete, betiere interes-gatazkaren esparruan.

Sailkapena

Interes-gatazka sortzen duen egoerari erreparatuz gero, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren arabera, honako hauek bereiz daitezke:

- a) Itxurazko interes-gatazka: Udaleko enplegatu edo onuradun baten interes pribatuek bere funtzioen edo betebeharren egikaritza objektiboa arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.
- b) Interes-gatazka potentziala: Udaleko enplegatu edo onuradun batek horrelako interes pribatuak dituenean sortzen da, eta interes horiek interes-gatazka sor dezakete etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.
- c) Interes-gatazka errealak: Udaleko enplegatu baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, eta Udaleko enplegatu publikoak interes pertsonalak ditu betebeharrak eta erantzukizun ofizialak modu bidegabean betetzeko. Onuradunaren kasuan, gatazka legoke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharren eta bere interes pribatuen artean, betebeharrak behar bezala betetzen ez badira.

Hartu beharreko neurriak

I) Prebentzioko neurriak

Interes-gatazka prebenitzeko fasea kudeatze aldera, honako neurri hauek hartuko dira:

- a) Berriazko ikastaroen bitartez, langileei interes-gatazken motak eta saihesteko moduak jakinarazi eta adieraziko zaizkie.
- b) Prozeduretako partaideek (dirulaguntza emateko/kontratatzeko organoaren arduraduna, lizitazioaren/oinarrien eta/edo deialdien agiriak idazten dituzten langileak, eskaerak/eskaintzak/proposamenak idazten dituzten adituak, eskaeren/eskaintzen/proposamenen ebaluazio-batzordeetako kideak eta prozeduran gainerako kide anitzeko organoetakoak) **Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)**

beteko dute. Kide anitzeko organoen kasuan, partaide guztiek adierazpena bileraren hasieran egin dezakete, eta aktan idatziz jasota geldituko da. Era berean, onuradunek IGEA bete beharko dute, laguntza emateko eskakizunen barruan jarduerak interes-gatazka potentziala izan badezakete.

IGEAren edukia plan honen **II. eranskinean** ageri da.

- c) Informazioa egiaztatzea honako baliabide baten bitartez: merkataritza-erregistroetako datu-baseak, nazioko eta EBko erakundeen datu-baseak, langileen espedienteak (datuak babesteko arauak kontuan hartuta), datuen prospekzio-tresnak ("data mining") edo arriskuak puntuatzeko tresnak (ARACHNE).
- d) Barne-araudia eta, bereziki, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legeari buruzko testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 53. artikulua zorrozki aplikatuko da printzipio etikoei dagokienez. Dena den, oso-osorik aintzat hartu beharko da III. tituluko V. kapitulua (Langile publikoen eskakizunak. Jokabide-kodea). Horrez gain, honako hauei erreparatu behar zaie: Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea.

II) Interes-gatazkei aurre egiteko neurriak

Neurriak hartu arren, interes-gatazka gerta liteke eta ezinbestekoa izango da zenbait neurri ez baztertzea:

- a) Hierarkian goian dagoenari interes-gatazka izan daitekeena jakinaraziko zaio. Berak lruzurraren Aurkako Batzordeari helaraziko dio, eta idatziz baieztatuko du gatazkatzat jotzen duen. Interes-gatazkatzat jotzen denean, izendapenak egiteko agintaritza eskudunak edo nazioko agintaritza egokiak gai horretan pertsonak jarduera guztia uzten duela zainduko du, eta edozein neurri osagarri hartu ahalko du, aplikatu beharreko zuzenbidearekin bat etorritz.
- b) Barne araudia (estatukoa, erkidegokoa edo tokikoa) zorrozki aplikatuko da eta, bereziki, aintzat hartuko da Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikulua errekusatzeari dagokionez eta Gardentasunari, informazio publikoa lortzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea.
- c) Nolanahi ere, interes-gatazka dagoenean edo zalantzan gelditzen denean, ez du parte hartuko erabakiak hartzean interes-gatazka hori izan daitekeen edozein prozesutan.

8. Oparien politika eta balizko onurak

Plan honen mendeko pertsonak saihestu egingo dute hirugarrenek eragitea edo nahastea, baldin eta zeregin horien ondorioz inpartzialtasuna, osotasuna eta objektibotasun profesionala galtzen badira.

Ez da pertsonengandik edo erakundeen eskutik oparirik edo zerbitzurik onartuko ohiko erabileretatik, gizarte-arlokoetatik eta kortesia-esparrukoetatik kanpo. Nolanahi ere, edozein dohaintza, opari edo zerbitzu ezetsiko da, etorkizuneko erabaki politikoetan, publikoetan edo administratiboetan eragiten badu.

Ez da sarrerarik, txartelik, loteria-zenbakirik edo beste edozein zuzeneko edo zeharkako irabazirik onartuko ohiko erabilerak, gizarteko edo kortesiako arlokoak gainditzen baditu edo erantzukizunak betetzean etorkizuneko erabakiak baldintzatu baditzake.

Horrez gain, beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dira familia-ingurune hurbilak oparirik edo irabazirik ez jasotzeko, edozein pertsonaren edo erakunderen aldeko tratua eragin dezaketela susmatzen bada.

Ez da onartu behar diru-ordainsaririk edo ordainsaririk gauzetan hitzaldiak emateagatik; liburuetan, aldizkarietan, egunkarietan ekarpenak egiteagatik edo edozein elkarrizketatan edo eztabaidatan parte hartzeagatik; betiere funtzioak betetzearekin lotuta badaude.

Opari zehatza onetsi edo ezesteko zalantza dagoenean, Iruzuraren Aurkako Batzordeari jakinaraziko zaio, eta organo horrek erabakiko du gaiari buruz egokiena. Prebentzioko eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko neurriak.

9. Prebentzioko eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko neurriak

9.1. Sarrera

“Iruzurra” terminoa etikarik gabeko portaera ugari deskribatzeko erabiltzen da, adibidez lapurreta, ustelkeria, eroskeria, faltsifikazioa eta kapitalak zuritzea. Sarritan, erakunde publikoarekin lotura duen pertsonaren edo hirugarrenaren irabazi pertsonaletarako edo beste pertsona batzuen galerarako engainua erabiltzen da.

Asmoa funtsezko elementua da iruzurra eta irregulartasuna bereizteko. Iruzurrak finantza-ondoreak izateaz gain, funtsak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatu behar dituen erakunde arduradunaren izen ona kaltetzen du.

2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua iruzurra hala definitzen du: *“nahitako edozein ekintza edo ez-egite, honako hauen inguruan”*:

- a) *Aitorpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabili edo aurkeztea, helburua Europar Erkidegoetako aurrekontu orokorretik edo Europar Erkidegoek administratzen dituztenetik ala bere kontura gauzatutakoetatik datozen funtsak bidegabe jasotzea edo atxikitzea bada.*
- b) *Ondore berarekin, informazioa jakinarazteko berariazko eskakizuna ez betetzea.*
- c) *Funtsak beste helburu batzuetarako erabiltzea”*.

Aldi berean, Europar Erkidegoen finantza-interesak babesteko Kontseiluaren 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 (EE Euratom) Erregelamenduaren 1.2 artikulua irregulartasuna honela definitzen du:

«Irregulartasuna izango da erkidegoko zuzenbideko xedapen baten arau-hauste oro eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite bati dagokiona, baldin eta ekintza edo ez-egite horrek erkidegoen aurrekontu orokorrari edo erkidegoek administratutako aurrekontuei kalte egiten badie, dela erkidegoen kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen diru-sarrerak murriztuz edo ezabatuz, dela bidegabeko gastu baten bidez».

Iruzurraren aurkako prebentzioko defentsarik onena da barneko kontrol-sistema indartsua abian jartzea. Hala, Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan honen kudeaketa-irismenarekin bat etorriz, identifikatu diren balizko arriskuei neurri erantzuteko moduan diseinatu eta gauzatu behar da.

9.2. Prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena: iruzurraren aurkako zikloa

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari (aurreratzean, SEM) buruzko Erregelamenduaren 22. artikulua estatu kideak behartzen ditu neurri egokiak hartzea iruzurra eta ustelkeria prebenitu, detektatu eta zuzentzeko. Horrez gain, lege-egintzak gauzatu beharko dituzte bidegabe bereganatu diren funtsak berreskuratzeko.

SEEPren jarduerak gauzatzen parte hartzen duten erakundeek iruzurraren aurkako neurrizko neurriak aplikatu beharko dituzte, iruzurraren aurkako zikloaren oinarritzko lau elementuren inguruan ardaztu ostean: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

9.3. Prebentzioa

Iruzurraren Aurkako Plan honetan garatzen diren prebentzioko neurriak iruzurraren edo ustelkeriaren aukerak murrizteko dira eta, horretarako, barneko kontrol-sistema indartsuak ezartzen dira, arriskuen ebaluazio proaktibo, ardaztu eta espezifikoarekin batera:

Jokabide Kodea

Udalak, besteak beste, honako balio hauek sustatzen ditu: osotasuna, objektibotasuna, kontuak ematea eta zintzotasuna.

Ildo horri eutsiz, Zumaiako Udalak Jokabide eta Etika Kodea (aurrerantzean, "Kodea") egin du, enpresaren jardunbide ona sustatze aldera orain arte emandako gomendioei eta printzipioei jarraikiz, bere kideen jarduketa-printzipioak zehazteko.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzeko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua xedatzen du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen parte hartzen dutenek iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartu beharko dituztela. Hori dela bide, balizko iruzur-egoerak arintzeko eta prebenitzeko berme gisa, Zumaiako Udalak kode bat onestearen aldeko apustua egin du.

Kodeak bere oinarria du Langile Publikoaren Oinarritzko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan eta, zehazki, langile publikoen eginkizunei buruzko VI. kapituluan.

Jokabide eta Etika Kodea **IV. eranskinean** ageri da eta Iruzurraren Aurkako Batzordeari dagokio eguneratzea.

Iruzuraren aurkako adierazpen instituzionala

Erantsi den adierazpen instituzionalaren bidez, Zumaiako Udalak iruzurraren aurka zero tolerantzia azaltzen du, osotasunaren, objektibotasunaren, kontuak ematearen eta zintzotasunaren balioetan oinarritzen baita.

Agiri honen **I. eranskinean**, iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala gehitu da nahasitako erakundeek errazago bete dezaten.

Gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA)

Dirulaguntzak eta SEMren kargura finantzatutako proiektuak kontratatzeke, kudeatzeko, egikaritzeko, kontrolatzeko eta ordaintzeko prozeduran esku hartzen duten guztiek interes-gatazkari buruzko adierazpena sinatuko dute nahitaez.

Halaber, IGEA betetzea hirugarrenentzat eskakizuna izango da proiektua gauzatzen parte hartzen badute (kontratistak eta azpikontratistak).

Nolanahi ere, kontratazio-organoko arduradunak, kontratazio-agiriak (agiriak, etab.) sinatzen dituzten langileek, eskaintzak ebaluatzen dituztenek eta prozeduran gainerako kide anitzeko organoetakoek sinatuko dute.

Agiri honen **II. eranskinean** gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) erantsi da.

Arriskuen ebaluazioa

HFP/1030/2021 Agindua betetzeko, Zumaiako Udalak berriazko metodologia egin du. Helburua da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan proiektuak gauzatzen direnean arriskuak aztertu eta ebaluatzea. Modu horretan, prozesuak kontrolatzeko berriazko arriskuak identifikatu dira, beren eragina eta gertatzeko aukera neurtzeaz gain. Azkenik, arrisku bakoitzerako kontrolen eraginkortasuna definitu da. Ekitaldi bakoitzean lortzen den emaitzaren arabera, emaitza ezin hobea bermatzeko kontrol berriak proposatu ahal izango dira.

Udalak bere arriskuak aztertu ditu, eta, ondorioz, prozeduren arabera, kudeaketa-maila bakoitzean arloari buruzko erantzukizunak ezagutu ditzake. Ebaluatzeke iturri desberdinak erabili dira, eta Europako jardunbide onenei erreparatu zaie. Gainera, prozeduren eta kontrolen eraginkortasuna egiaztatu da, eta edozein bidetik balizko desadostasunak edo arau-hausteak detektatu dira.

Ebaluazio-prozesuan iruzur-arriskuak identifikatu, aztertu eta baloratzen dira, honako helburu hauek betetzeko:

- Arrazoiz Udalak aurrera dezakeen arriskua identifikatzeko.
- Arrisku horiekin zerikusia duten delituen edo arau-hausteen eragina eta probabilitatea aztertzeke.
- Identifikatutako arriskuak aztertzeke.
- Identifikatutako arriskuak baloratzeko.
- Kontrolen diseinua eta eraginkortasuna egokiak diren baloratzeko.

Iruzuraren Aurkako Batzordeak eguneratuko du, eta, xede horrez, gutxienez, bi urtez behin ikuskatuko du. **XI. eranskinean** iruzur-arriskuen ebaluazioa ageri da.

Prestakuntza eta sentsibilizazioa

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua EBko funtsen erakunde hartzaileentzat aukerako prebentzioko neurritzat du prestakuntza-ekintzen bitartez "prestakuntza eta kontzientziaketa" maila guztietan. Helburua da arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko, berariazko kontrolak zehazteko eta iruzurra detektatzean jarduteko ezagutzak bereganatu eta transferitzea, bai eta erreferentziako kasu praktikoak ezagutzea eta zabaltzea ere.

Erakundeak iruzurraren aurkako gomendio argiak emango dizkie langile publikoei eta beraietarako prestakuntza-ekintzak sustatu ere bai. Gainera, konpromisoa hartu du Zumaiako Udaleko langileek Europako Funtsen agintariak, beste organo eta/edo erakunde publiko batzuek edo Udalak berak gaiari buruz antolatzen dituzten foroetan, jardunaldietan, tailerretan, hitzaldietan, mintegietan, prestakuntza-ikastaroetan, eta abarretan parte hartzeko. Gauza bera egin ahal izango da buletin, kartel, interneteko webguneen bitartez edo taldeko bileretan ohiko gai modura sartuz.

Analisi sistematiko eta automatizaturako tresnak erabiltzea

Zumaiako Udalak analisi sistematiko eta automatizaturako tresnak erabili ahalko ditu. Halakoetan, informazioa egiaztatuko da, besteak beste, honako baliabide baten bitartez: merkataritza-erregistroetako datu-baseak, nazioko eta EBko erakundeen datu-baseak, langileen espedienteak (datuak babesteko arauak kontuan hartuta), datuen prospekzio-tresnak ("data mining") edo arriskuak puntuatzeko tresnak (ARACHNE).

VII. eranskinean, tresna informatiko batean oinarrituta, SEEP gauzatzen duten prozedurei dagokienez, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenari buruzko gutxieneko edukia erantsi da.

VIII. eranskinak interes-gatazkarik eza baieztatzeko ereduak du.

IX. eranskinean arauak ageri dira lehia masiboan dirulaguntzak eman behar diren prozedurak daudenean, zer eskaeratan interes-gatazkaren arriskua aztertu behar den zehazteko.

9.4. Detekzioa

Prebentzioko neurriek ez dute erabat babesten, beraz, Zumaiako Iruzuraren Aurkako Neurrien Planak sistemak ditu prebentzioko neurriei ihes egiten dieten iruzurrezko portaerak garaiz detektatzeko. Helburu horrekin dagokion jarduketan eremu gatazkatsuak eta iruzurrezkoak izan daitezkeen jarduerak identifikatzen dira, detektatzeko neurriak diseinatu eta egikaritzeaz gain:

Salaketa-kanala

Detekzio-elementu gisa salaketa-kanala izatea funtsezkoa da arriskuak gertatu direnean ahalik eta lasterren iruzurra, ustelkeria, interes-gatazkak edo finantzaketa bikoitza aurkitzeko.

Salatzaileei erraztasunak emateari begira, barneko eta kanpoko kanalak zehazten dira, erakundearen jardunean iruzur- edo irregulartasun-susmoak edo -salaketak jakinarazteko.

Zumaiako Udalak barneko salaketa-kanal bat du.

Kanala Udaleko webgunean eskuragarri da:

- Euskara:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ISAK&idAyto=81&idioma=eu-ES>
- Gaztelania:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ISAK&idAyto=81&idioma=es-ES>

Horren bitartez jakinarazi ahal izango dira detektatu diren iruzurraren susmoak eta ustezko irregulartasunak:

1. Salaketa aintzat hartuko da, eta gestioen emaitzak aditzera emango dira.
2. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa errespetatuko dira.
3. Funtzionario publikoen kasuan, ez dute errepresaliarik izango eta ez zaie zehatuko.

Zumaiako Udalak kanal honen bidez detektatzen eta salatzen diren iruzurraren susmoak eta/edo irregulartasunak jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Iruzuraren susmoa Iruzuraren Aurkako Batzordeari jakinarazten zaionean, Batzordeak Estatuko agintaritza eskudunari helaraziko dio, azkenekoak ikertu eta zehatu dezan. Halaber, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF) berri emango dio.

Horrez gain, Udalaren barneko kontrol-sistemak ikuskatu beharko dira, balizko iruzurrak edo frogak ukitu ote dituen ikusteko.

Beraz, irregulartasunak salatzeko prozedura zehaztu da, hala badagokio, detektatutako irregulartasunak eta arau-haustekak jakinarazteko eskubidea barne duena.

Barneko salaketa-kanala erabiltzea gomendatzen da. Hala eta guztiz ere, kanpoko kanalak ere badaude, besteak beste, honako hauek:

- IGAERen kanal publikoa iruzurrezko portaeren salaketak jakinarazteko. Kanal horretan herritar guztiek eta neurrian parte hartzen duen edozein pertsona fisikok edo juridikok parte hartu dezakete.
<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>
- IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO EUROPAKO BULEGOARI (OLAF) aditzera ematea iruzurra edo bestelako irregulartasun larriak, EBko funts publikoetarako (EBko erakundeen diru-sarrerak, gastuak edo aktiboak) ondorio negatiboak izan baditzakete, eta/edo EBko erakundeetako eta instituzioetako kideen ala langileen arau-hauste larriak.
https://anti-fraud.ec.europa.eu/olaf-and-you/report-fraud_es
- Arartekoaren zeregin nagusia da administrazioaren jarduketa okerrei edo irregularrei buruz kekek, eskeak edo kontsultak planteatzen dituztenean herritarrei arreta ematea eta kekek izapidetzea nahasitako administrazioari bere jardunaren gainean kontuak eskatzeko.

Analisi sistematiko eta automatizaturako tresnak erabiltzea

Zumaiako Udalak iruzurra detektatzeko analisi sistematiko eta automatizaturako tresnak erabili ahal izango ditu, hala nola datu-baseak (dirulaguntzen datu base nazionala –DDBN–), datuen prospekzio-tresnak (“data mining”) edo arriskuak puntuatzeko tresnak (ARACHNE).

VII. eranskinean, tresna informatiko batean oinarrituta, SEEP gauzatzen duten prozedurei dagokienez, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenari buruzko gutxieneko edukia erantsi da.

VIII. eranskinak interes-gatazkarik eza baieztatzeko eredia du.

IX. eranskinean arauak ageri dira lehia masiboan dirulaguntzak eman behar diren prozedurak daudenean, zer eskaeratan interes-gatazkaren arriskua aztertu behar den zehazteko.

Alerta-adierazleak edo bandera gorriak

Bandera gorriak balizko iruzurraren alarma-ikurrak, aztarnak edo arrastoak dira. Adierazle bat izan daiteke iruzurrezko jarduera edo ustelkeria-egintza gertatzen ari dela ohartarazteko.

Hortaz, zerbait ohikotik ateratzearen seinale da, jarduera arruntarekiko ezohikoa edo desberdina da, eta arreta handiagoz aztertu behar da.

Alerta-adierazleen aurrean, langileek eta arduradunek adi egon beharko dute, eta iruzurraren arriskua dagoen baietsi edo ezesteko neurriak hartuko dituzte.

Bandera gorria egon arren, halabeharrez ez da iruzurrik edo bestelako irregulartasunik azaldu behar, baina jarduera-arlo zehatz batek aparteko arreta eskatzen du irregularra izan daitekeen jarduera baztertu edo baieztatzeko.

V. eranskinean alerta-adierazleak edo bandera gorriak ageri dira.

9.5. Zuzenketa

Balizko iruzurra detektatzen denean edo susmo funtsatua dagoenean, prozedura berehala etengo da, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie inguruabarra jarduketetan nahasitako erakundeei eta agintaritza interesdunei eta arriskua izan duten proiektu guztiak ikuskatuko dira.

Xede horrez, Iruzuraren Aurkako Batzordeak iruzurra ebaluatuko du eta sistematikotzat edo puntualtzat joko du. Gainera, iruzurrak eragiten dituen proiektuak edo horien zati bat baztertuko ditu, baldin eta SEMk finantzatzen baditu edo mekanismo horrekin finantzatu nahi badira.

Zehatz-mehatz esanda, honako jarduketa hauek gauzatuko dira:

a) SEMko funtsak kudeatzeko zer negozio-mota erabili den aintzat hartuta, aplikatu beharreko estatuko, erkidegoko eta tokiko araubideari jarraikiz, prozedurak etetea eta, bidezkoa bada, hirugarrenei ordainketak etetea edo gelditzea. Hirugarren horiek erakunde fisikoak edo juridikoak ala nortasun juridikorik gabeko erakundeak, publikoak edo pribatuak, dira, eta aurrekontu-eragiketak edo aurrekontuarekin zerikusia ez duten eragiketak direla eta, SEMko funtsak gauzatu eta erabakitzen dituzten erakundeekin erlazionatzen dira, eta beren aldeko betebeharrak sortzen dira edo ordaindu behar zaie.

b) Bidegabe ordaindu diren funtsak berreskuratzea, aplikatu beharreko estatuko, erkidegoko eta tokiko araudiak xedatzen dituzten prozedurekin bat etorriz, berriz ere, erabili den kudeaketa-prozedura kontuan hartuta.

c) Gertakariak agintaritza eskudunei helaraztea mekanismoa gauzatzean parte hartu duten langile publikoen edo goi-mailako karguen administrazio-, ondare- edo kontabilitate- eta zigor-erantzukizunak eskatzeko edo hirugarrenen kasuan administrazio- eta zigor-erantzukizunak erreklamatzeko.

9.6. Jazarpena

Jazarpena iruzurraren aurkako zikloko azken fasea da. Fase honen barruan ahalik eta lasterren egingo dira honako hauek:

- Gertakariak eta neurriak erakunde erabakitzaileari edo jarduketak gauzatzea agindu zaion erakunde betearazleari jakinaraziko zaizkio. Erakunde betearazleari jakinaraziz gero, erakunde horrek jakinarazi beharko dio erakunde erabakitzaileari. Azken erakunde horrek gaia agintaritza arduradunari helaraziko dio, eta informazio osagarria eskatu ahalko dio jarraitu eta kontrol-agintaritzari berri emateko.
- Beharrezkoa bada, gertakari zehagarriak agintaritza publiko eskudunen aurrean (Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala –IAKZN–) salatuko dira, batetik, baloratu eta, bestetik, aukeran Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari jakinarazteko.
- Erantzukizunak argitzeko edo zehapen-espeditatea hasteko isilpeko informazioa hasiko da.
- Egokia denean, gertakariak fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatuko dira.

10. Estatu-laguntzak eta finantzaketa bikoitza

Zumaiako Udalak SEEP gauzatzen parte hartzen du. Horrenbestez, prozedurak aplikatuko ditu une oro Estatu-laguntzei eta lehia askeari buruzko araudia erabat errespetatzen dela ziurtatzeko eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko. Xede horrez, prozedura horiek Estatuko laguntza-erregimenarekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitza prebenitzeari buruzko Aginduaren 7. artikuluekin eta III. eranskinarekin lerrokatuko dira.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 107. artikulua xedatutakoaren arabera, Estatu-laguntzat jotzen da estatuek edo estatuko funtsen bidez emandako edozein laguntza, edozein modutan, lehia faltsutzea edo faltsutzea mehatxatzea dakarrena eta enpresa edo ekoizpen zehatzei mesede egiten diena.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluek debekatu egiten dute operadore ekonomiko batek lehia askea faltsutzen edo murrizten duen edozein jokabide aldeaniztun edo aldebakarreakoa izatea. Zumaiako Udalak printzipio horiek errespetatu beharko ditu une oro, EBFTan, Lehia Defendatzeko Legean eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

Xede horrez, Estatu-laguntzen erregimenarekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitza prebenitzeari buruzko autoebaluazioa egingo du (**VI. eranskina**). Gutxieneko estandarren gaineko autoebaluazioko galdeketa da, eta Zumaiako Udalak aldizka bete beharko du emaitzen txostenetan detektatu duen arriskuari jarraikiz.

Eranskin berean gutxi gorabeherako aipamena sartu da Estatu-laguntzen erregimenarekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitza prebenitzeari buruzko eskeak errazago betetzeko.

Arau hauek betetzen ez dituen kasuren bat detektatzen bada, Zumaiako Udalak prozesua geldituko du, eta agintaritza eskudunei aditzera emango die arloan Europako Batzordearen gomendioek diotenaren bidetik.

Finantzaketa bikoitza prebenitu eta detektatzeko tresna gisa, Udalak zenbait datu-base edo informazio-sistema kontsultatu ahalko ditu (dirulaguntzen datu-base nazionala, Arachne edo *Financial Transparency System*).

11. Barneko salaketa-kanala

11.1. Sarrera

Barne-prozedurez gain, iruzurra, ustelkeria edo bestelako urradura etikoak detektatu nahi badira, ezinbestekoa da tresnak izatea edozein pertsonak (udalbatzakoa eta kanpokoak) edozein susmo salatu dezan eta, ondoren, ikertzen has dadin.

Ildo horri eutsiz, Zumaiako Udalak, jokabide okerraren, iruzurraren, ustelkeriaren edo bestelako urradura etikoen edozein susmo isilpean eta babespean jakinarazi daitekeela bermatze aldera, barneko salaketa-kanala ezartzeko konpromisoa hartzen du, arloan indarreko araudiarekin bat etorritz.

Komenigarria da edozein ekintza edo ez-egite ezagutzea, baldin eta gobernu onaren printzipioen aurka badoa, kudeaketa publikoa indartzeko. Ildo horretatik sortu zen kanal hau. Kanalak informazio guztien konfidentzialtasuna bermatzeko mekanismoak ditu. Helburua da edozein pertsona edo zerbitzari publikok informazioa aske eman ahal izatea, errepresaliarik gabe.

Kanala Udaleko webgunean eskuragarri da:

- Euskara:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ISAK&idAyto=81&idioma=e-u-ES>
- Gaztelania:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ISAK&idAyto=81&idioma=e-s-ES>

11.2. Helburuak

Salaketa-kanalaren xedea da edozein pertsona edo zerbitzari publikori komunikatzeko erraztasunak ematea udal-administrazioak egin dituen ekintzak jakinarazteko, indarreko araudi esparrua kontuan hartuta, zuzenbidearen, printzipioen edo arau etikoen eta gobernu eta administrazio onaren aurka badoaz.

Helburua da baliabide publikoen erabilera zuzena zaintzea; interes-gatazkak ebaztea; orokorrean, udal-eskumenak erabiltzean eta, bereziki, kontratazio publikoaren, funtzio publikoaren, sustapen-jardueraren, eta abarren gaietan kudeaketa publikoaren objektibotasuna eta neutraltasuna izatea.

Barneko salaketa-kanalak honako helburu hauek ditu:

- a) Kudeaketa publikoaren gobernu ona eta jardunbide onak sustatu eta hobetzea.
- b) Udalaren zerbitzura diharduten hautatuek eta langileek jarraitu behar dituzten gobernu eta administrazio onaren arauak eta printzipio edo arau etikoak bete daitezen bultzatzea.
- c) Lehen aipatu diren jokabideak sustatzen laguntzea, eta erreakzioko jokabideen gainetik prebentzioari lehentasuna ematea.
- d) Udal-administrazioaren eta pertsonen arteko lankidetzaren sustatzea partaidetzaren bitartez kudeaketa publikoan balio etikoak lantzeko.

11.3. Jarduketa-eremua

Jakinarazpenak edozein jarduketari buruzkoak izan daitezke, baldin eta botere publikoak baliatzean pertsona fisiko edo juridikoen onuran eta interes orokorren kaltean nahita administrazio txarra badago eta, ondorioz, Udaleko agintariek, zuzendariak edo langileek garatzen dituzten jarduketak iruzurrak edo ustelkeriak izan badaitezke. Era berean, interes-gatazkari buruzko arauak betetzen ez dituzten jokabide guztiak sala daitezke.

Ezingo dira jokabideak edo gertakariak salatu Polizia Judizialaren, Ministerio Fiskalaren edo Agintaritza Judizialaren eskumenekoak badira, ez eta erakunde horiek ikertzen edo izapidetzen ari direnak ere.

Kontuan hartu eta onesteko, salaketa-kanalera zuzendutako jakinarazpenek honako eskakizun hauek beteko dituzte:

- Frogak eskuratzeko jakinarazten den egoerari buruzko dokumentazio eskuragarri guztia eta aztarna objektiboak helaraztea; ezingo dira jarduketak hasi iritziekin bakarrik.
- Helarazten den informazioa ziur jakitea, eta udal-sektore publikoaren segurtasunerako garrantzi berezia izatea.
- Nolanahi ere, informazioa ez da izapidetuko funtsik ez duenean edo argi eta garbi faltsua denean, ez eta informazioa urria izateagatik, gertakarien deskribapena orokorregia eta zehaztugabea suertatzeagatik ala froga-elementuen gabeziagatik informazioa arrazoiz egiaztatu ezin daitekeenean eta jakinarazitako gertakariei eman behar zaien tratamendua gutxienekoan zehaztea ezinezkoa denean ere.

11.4. Jakinarazpenak jarraitzea

Jakinarazpena aurkeztu eta izapidetzeko onetsi denean, gertakariak egiaztatuko dira.

Ikertzen jardungo da, eta, bidezkoa bada, kudeaketa publikoa hobetzeko gomendioak emango dira. Bestela, organo eskudunari proposatuko zaio administrazio-espeditenteak hastea asaldatutako legezketasuna lehengoratzeko, zehapen- edo diziiplina-neurriak hartzeko ala zigorzehapena izan dezaketen jokabideak Fiskaltzari jakinarazteko.

Prozesu guztian mekanismoak daude informazioa ematen duten pertsonen eta izendatutakoen segurtasuna bermatzeko.

11.5. Konfidentzialtasunaren bermea

Informazioa jakinarazten duen pertsonak berriaz kontrakoa eskatzen duenean izan ezik, nortasuna isilpean gordeko da, eta ez da ezagutzera emango.

Xede horrez, jakinarazpen, egiaztapen-jarduketa edo dokumentazio-eskaera guztietan informazioa bidali duen pertsonaren nortasunari buruzko datuak eta bestelakoak ezabatuko dira, betiere oso-osorik edo zati batean identifikatzera badaramatzate.

Horrez gain, dagozkion prozedurak izapidetzeko jarduketak beste organo bati helarazi behar zaizkionean, beste organo horiei bidaliko zaien dokumentazioari dagokionez, aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da. Salbuespena dira jurisdikzio-organismoak edo Ministerio Fiskala eta prozedura judizialaren araudiak bestelakoa arautzea. Azkeneko kasuan, berriemailearen nortasuna ezinbesteko pertsona edo organoei baino ez zaie jakinaraziko.

11.6. Salatzailearen eskubideak

- Salatzaileari espedientean ateratako ondorioen berri emango zaio.
- Salaketaren ondore bakarra da Iruzzurren Aurkako Batzordeari ustezko gertakari irregularrak aditzera ematea. Salatzailea ez da inola ere emandako informazioaren ondoriozko administrazio-jarduketetan interesduna izango eta jarduketan emaitzak direla-eta errekursoak edo erreklamazioak jartzeko ez da legitimatuta egongo.
- Zumaiako Udalak salatzaileak salaketaren ondoren, zuzenean edo zeharka, mehatxuak edo errepresaliak jaso dituela ezagutzen badu, egintza zuzentzaileetara jo ahal izango du edo egokitzen jotzen dituenak berrezarriko ditu.

12. Datu pertsonalen babesa

Udalak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudia, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, betetzen ditu.

Gaiari eutsiz, zorrozki eta objektibotasunez salaketak eta kontsultak kudeatu, izapidetu eta erantzuteko eta, bidezkoa bada, irregulartasunak ikertzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak eskuratuko ditu. Hori guztia plan honen esparruan egingo du.

Datu pertsonalak beren-beregi helburu horretarako tratatuko dira, eta ez dira ondoren helburu bateraezinetarako erabiliko.

Udalak halabeharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzari buruzkoak hartu ditu plan honen esparruan tratatzen diren datuen segurtasuna, konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko.

13. Onestea eta ikuskatzea

Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana Osoko Bilkurak onesten duenean jarriko da indarrean eta Iruzuraren Aurkako Batzordeak egindako gomendioak kontuan hartuta ikuskatuko da.

Plana urtero jarraitu eta ebaluatuko da erregulazioari eta praktikotasunari begira betetzen dela zaintzeko eta kudeaketa-prozesuan hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzeko.

Urteko aldizkakotasuna gorabehera, arrisku edo gorabeheraren bat detektatzen bada, planeko neurriak jarraituko dira.

14. Publizitatea

Plana eta eguneratzeak Udalaren webgunean argitaratuko dira eta nahasitako langile guztiei zabalduko zaie nahitaezko publizitate aktiboaren eskakizuna betetzeko, Gardentasunari, informazio publikoa lortzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 6. eta 7. artikuluek xedatutakoaren babesean.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA – IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2020ko uztailaren 21ean, Europako Kontseiluak "NextGeneration EU" (EBko hurrengo belaunaldia) izeneko aparteko tresna bat adostu zuen, 750.000 milioi eurokoa, aldi baterako, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, estatu kideekin koordinatutako erantzun europarra bermatuz.

NextGeneration EUren barruan bolumen handieneko tresnetako bat Berreskuratze eta Erresilientziarako Mekanismoa da (BEM), 672.500 milioi eurokoa. BEMen helburuak garatzeko funtsezko atal gisa, irailaren 30ean BOEn irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua argitaratu zen. Horren bidez, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (BEEP) egituratu da. Plan horren arabera, administrazio publikoek hainbat neurri hartu behar dituzte, besteak beste, kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea, haien konfigurazioarekin batera. Horrez gain, planean aurreikusitako neurrien barruan (eraldaketak/inbertsioak) dauden proiektuak eta azpiproiektuak definitu, planifikatu, gauzatu, jarraitu eta kontrolatzera bideratutako kudeaketa zehaztu behar dute.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Araudiaren 22. artikulua zenbait betebeharrak ezartzen dizkio Espainiako Estatuari, EBren finantza-interesak babeste aldera. Horretarako, iruzurraren aurkako neurrien plan bat egituratzeko betebeharrak ezartzen dio, EBren finantza-interesak babesteko helburuarekin.

Betebehar hori erdieste aldera, Aginduaren 6. artikuluan ("iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea"), BEEP neurriak betearazten parte hartzen duten erakunde erabakitzaile edo betearazle guztiek Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan bat eduki beharko dute. Horren helburua da bermatzea eta aitortzea, dagokion jarduera-eremuan, dagozkien funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokienez.

"Iruzur" terminoak engainua erabiltzea esan nahi du, irabazi pertsonalak lortzeko erakunde publiko bati lotutako pertsonarentzat edo hirugarren batentzat, edo galerak beste pertsona batentzat. "Ustelkeria" irabazi pertsonalak lortzeko botere-abusua da. "Interes-gatazka" dago pertsona baten eginkizunak modu inpartzialean eta objektiboan betetzeko arriskuan dagoenean, familiarekin, kideekin, politiko edo nazionalekin, interes ekonomikoekin edo EBko funts-eskatzaile batekin adibidez, partekatutako beste edozein interes-motarekin zerikusia duten arrazoiengatik. Iruzurrak, ustelkeriak eta interes-gatazkako kasuen kudeaketa txarrak ondorio finantzarioak izateaz gain, kalte larria egiten diote baliabide publikoei eta, beraz, EBko funtsak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzeko ardura duen erakundearen ospeari.

Udalak iruzurraren eta ustelkeriaren aurka dagoela adierazi du erabat, eta kalitate juridiko, etiko eta moral handia mantentzeko konpromisoa hartu du, bai eta osotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta zintzotasun printzipioen arabera jokatzekoa ere. Gainera, bere eginkizunak betetzean iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa berretsi du, eta interes-gatazkak goiz eta behar bezala kudeatzeko asmoa adierazi du.

Udalak iruzurraren aurkako politika bat onartu du, edozein iruzur-jardueratarako disuasio-efektua izango duen betetze-kultura sustatzeko, eta, horrela, jarduera horiek modu proportzionatuan, eraginkorrean, egokian eta denboran zehar egokituz prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazarri ahal izateko.

Horrez gain, [EBko] Udalak konpromisoa hartzen du kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredu bat ezartzeko, EBko funtsak lortzeko eta bideratzeko espedienteen estandar etiko onenekin bat datorren izapidetze eraginkorra ziurtatzeko, BEEP planean aurreikusitako helburuak bete ditzan. Horren ondorioz, Udalak konpromiso instituzionala hartu du 2022ko martxoaren 30a baino lehen Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartzeko.

Zehazki, konpromisoa hartzen du, bestek beste, epe horren barruan jarduketa hauek egiteko:

1. Arriskuen analisia eta ebaluazioa.
2. Kode Etikoa idaztea.
3. Kanal etikoaren protokoloa idaztea.
4. Interes-gatazkak prebenitzeko politika idaztea.
5. Eragozpenen eta oparien politika idaztea.
6. Iruzurraren prebentzioari buruzko prestakuntza eta kontzientziazioa.
7. Iruzurra Kontrolatzeko Organoa izendatzea.

Udalak barneko jakinarazpen-kanalen bidez antzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzurraren eta ustelkeriaren susmoak salatuko ditu, eta Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta gainerako agintari eta erakunde publikoekin, Estatuko segurtasun-kidegoekin, autonomikoekin edo foralekin lankidetzan arituko da une oro.

II. ERANSKINA - INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

Espedientea:

Kontratua/dirulaguntza.

Goian aipatutako kontratazioaren/dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, agiria sinatzen duenak/dugunok, espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte hartzen dutan/dugun aldetik, honako hau adierazten dut/dugu:

Lehen. Honako honen berri duela/dutela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Araudiaren (EBren finantza-araudia) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») honako hau ezartzen du: *«interes-gatazka egongo da eginkizunen egikaritze inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia, afektibitatea, kideatasun politikoa edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik.»*
2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehia ez desitxuratzeko, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatzailerak guztiei tratu-berdintasuna ziurtatzea.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Parte ez hartzea») ezartzen duenez, prozeduran ez dute esku hartu behar «hurrengo paragrafoan adierazitako inguruabarretako batzuk betetzen dituzten administrazioetako agintariek eta langileek», hauek izanik:
 - a) Interes pertsonala izatea kasuan kasuko gaian edo gai horren ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzailea izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta laugarren mailako odol-kideatasun-ahaidetasuna edo bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen administratzaileekin eta prozeduran parte hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, bai eta bulego profesionala partekatzea edo horiekin elkartuta egotea ere aholkularitzea, ordezkari edo mandaturako.
 - c) Aurreko atalean aipatutako pertsonaren batekin adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna izatea.
 - d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.
 - e) Zerbitzu-harremana izatea gaian zuzenean interesa duen pertsona fisiko edo juridikoarekin, edo azken bi urteetan hari edozein motatako zerbitzu profesionalak eman izana, edozein egoeratan edo tokitan».

Bigarrena. Ez nagoela/gaudela EBren Finantza Araudiaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen ezin egoeratan, eta ez nagoela/gaudela ez parte hartzeko lizitazio/emakida prozedurari eragin diezaiokkeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan xedatutako kausarik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dudala/dugula kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, interes-gatazkako edozein egoera edo ez parte hartzeko kausa, egoera hori sortzen duena edo eragin dezakeena.

Laugarrena. Badakidala interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioak, ondorio administratiboak eta judizialak ekarriko dituela.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

III. ERANSKINA - INTERES-GATAZKARI ETA IRUZURRAREN ETA USTELKERIAREN PREBENTZIOARI BURUZKO AUTOEBALUAZIO-TESTA

GALDERA	BETETZE- MAILA ¹			
	4	3	2	1
1. Ba al dago « Iruzurraren aurkako neurrien planik » erakunde betearazleari edo erakunde erabakitzaileari bermatzeko eta adierazteko kasuan kasuko jarduera-eremuan funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez?				
2. Egiaztatzen al da « Iruzurraren aurkako neurrien plana » dagoela betearazpen-maila guztietan?				
PREBENTZIOA				
3. Ba al dago iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa hartzen duen adierazpen gorenik?				
4. Autoebaluazio bat egiten al da arrisku espezifikoa, arrisku horien inpaktua eta horiek gertatzeko probabilitatea identifikatzeko eta aldizka berrikusteko?				
5. Kode etiko bat zabaltzen al da eta opari-politikari buruzko informazioa ematen al da?				
6. Ematen al da prestakuntzarik Etika Publikoa sustatzeko eta iruzurra errazago detektatzeko?				
7. Egin al da interes-gatazkak tratatzeko prozedurarik?				
8. Betetzen al dute esku-hartzaile guztiek interes-gatazkarik ezaren adierazpena?				
DETEKZIOA				
9. Zehaztu al dira iruzur-adierazleak edo alerta-seinaleak (bandera gorriak) eta jakinarazi al zaizkie detektatzeko moduan dauden langileei?				
10. Datuak aztertze edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiltzen al dira?				
11. Ba al du edozein interesdunek salaketak aurkezteko biderik?				
12. Ba al dago unitaterik salaketak aztertu eta neurriak proposatzeko?				
ZUZENKETA				
13. Iruzurraren eragina ebaluatu eta sistemikotzat edo puntualtzat jotzen al da?				
14. Erretiratzen al dira iruzurrak eragindako proiektuak edo proiektu horien zatia, baldin eta SEMk finantzatzen baditu edo mekanismo horrekin finantzatu behar badira?				
JAZARPENA				
15. Gertakariak eta hartutako neurriak jakinarazten al zaizkie erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo Agintaritza Arduradunari, dagokionaren arabera?				
16. Hala behar denean, zigortzeko moduko egitateak estatueta edo Europar Batasuneko Agintaritza Publikoei edo fiskaltzari				

¹ **OHARRA:** 4 gehieneko betetze-mailaren baliokidea da; 1, ordea, gutxienekoarena.

eta auzitegi eskudunei salatzen al zaizkie?				
PUNTUEN SUBTOTALA				
PUNTUAK GUZTIRA				
GEHIENEO PUNTUAK				
PUNTU ERLATIBOAK (PUNTUAK GUZTIRA/GEHIENEO PUNTUAK)				



IV. ERANSKINA - ETIKA ETA JOKABIDE KODEA

1. artikulua.- Xedea

Etika eta Jokabide Kodearen helburua da kultura etiko bat garatzea iruzur, ustelkeria eta interes-gatazkei aurrea hartzeko, eta, halaber, Zumaiako Udaleko langile guztien jokabideak izan behar dituen oinarriko printzipioak ezarri eta bermatzeko.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Kode hau honako pertsona eta erakunde hauek bete beharko dute:

- Zumaiako Udaleko langile guztiek, baldin eta SEMren jarduketak erabakitzeke, izapidetzeko eta betearazteko jarduketak egiten badituzte.
- Zumaiako Udalarekin lotutako gainerako entitate eta erakundeek, baldin eta horien kudeaketa, edozein titulugatik, Udalaren erantzukizuna bada.

Halaber, Zumaiako Udalarekin lan-harreman zuzena duten eta harekin lankidetzan aritzen diren pertsonen aplikatuko zaie, eta kode honen oinarriko printzipioak ezagutu eta errespetatu beharko dituzte.

3. artikulua.- Enplegatu publikoen eginbehar eta printzipio gidariak

Enplegatu publikoek arretaz bete beharko dituzte eman zaizkien zereginak eta interes orokorrak zaindu, betiere, Konstituzioari eta gainerako antolamendu juridikoari begiratuta eta haiekin lotuta; printzipio hauek oinarri hartuta jardun beharko dute beti: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua; horiexek dira enplegatu publikoen jokabide-kodearen abiaburu, ondorengo artikuluetan erregulatuko diren printzipio etikoak eta jokabide-printzipioak oinarri izanik.

4. artikulua.- Printzipio etikoak

Kode hau honako printzipio etiko hauek osatzen dute:

- a) Enplegatu publikoek Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.
- b) Enplegatu publikoen jardunak herritarren interes orokorrak betetzea izango du xede, eta inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboak izango ditu oinarri, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiar-tekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.
- c) Beren jarduna leialtasunaren eta fede onaren printzipioen arabera izango da, bai lanean diharduteneko Administrazioarekin, baita nagusi, lankide, menpeko eta herritarrekin ere.

- d) Enplegatu publikoen jokabideak oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua izango du oinarri, eta saihestu egingo ditu era guztietako bereizkeriak, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla-eta sor litezkeenak.
- e) Ez dute parte hartuko interes pertsonala duten gaitan, ez eta jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere, baldin eta lanpostu publikoaren interesetik gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete.
- f) Enplegatu publikoek, lanpostu publikoaren betebeharrakiko interes-gatazka sortzeko arriskua dagoenean, ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute pertsona nahiz erakundeekin parte hartuko finantza-eragiketetan, ondarezko betebeharrak edo negozio juridikoetan.
- g) Enplegatu publikoek ez dute pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesedetraturik onartuko, ez eta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- h) Eraginkortasun-, ekonomia- eta eragimen-printzipioen arabera jardungo dute; eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezzen zainduko dute.
- i) Enplegatu publikoek ezin dute, tartean bidezko arrazoirik izan gabe, administrazio-prozedurak edo tramiteak azkartzeko edo ebazteko eraginik izan; are gutxiago, horrek pribilegioa badakar kargu publikoetako titularren alde edo beren familiartekoen edo inguru sozialaren alde, edo kaltea badakar hirugarren batzuen interesen aurka.
- j) Enplegatu publikoek arretaz beteko dituzte eginkizunak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta, hala dagokienean, epe barruan ebartziko dituzte eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.
- k) Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazio-printzipioari jarraituz beteko dituzte dagozkien eskurantzak, eta saihestu egingo dituzte, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoen jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketen jokabide guztiak.
- l) Sekretupean gordeko dituzte sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatuko dute beren kargua dela-eta dakizkiten gaietara buruz; eta eskuratu duten informazio hori ezin izango dute erabili ez beren mesederako, ez hirugarren batzuen erako, ez eta interes publikoaren kalterako ere.

5. artikulua- *Jokabide-printzipioak*

Kode hau honako jokabide-printzipio hauek osatzen dute:

- a) Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.
- b) Enplegatu publikoek, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzerakoan, zuhurtasunez eta arretatsu jokatuko dute, eta ezarritako lanaldia eta ordutegia beteko dute.
- c) Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionalen men egin behar diete, argi eta garbi ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, ikuskaritza-organoko egokiei jakinarazi behar diete berehala horren berri.
- d) Eskubidez jakin beharreko gaietara eta arloetara buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta laguntza emango diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete dituzten.
- e) Enplegatu publikoek baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko norberaren edo hurbilekoen mesederako. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko eginbeharra ere izango dute.

- f) Ez da abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik onartuko, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoari kalte egin gabe.
- g) Dokumentuen ziurtasuna eta iraupena bermatuko dituzte, agiri horiek ondorengo arduradunei eman eta eskualdatu ahal izateko.
- h) Eguneratuta izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.
- i) Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.
- j) Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jarriko dituzte, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko, beren ustez egoki diren proposamenak. Horretarako, enplegatu publikoek eta herritarrek egindako proposamenak jasotzearen lana zentralizatzeko eskumena emanda, egoki iritzitako instantzia sortzeko aurreikuspena egin ahal izango da, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko.
- k) Herritarrari berak eskatutako hizkuntzan erantzungo zaiola bermatu behar dute, hizkuntza hori lurralde horretan ofiziala bada.

6. artikulua- Gobernu onaren printzipioak

Honako hauei aplikatuko zaie artikulua hau: gobernuko kideei, estatu-idazkariei eta Estatuko Administrazio Orokorreko eta Estatuko sektore publikoko erakundeetako gainontzeko goikarguei –diren erakundeok zuzenbide publiko edo pribatukoak, Administrazio Orokorri lotutakoak edo haren mendekoak–. Artikulu hau aplikatuko zaie arlo honetan aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko edo tokiko araudiarekin bat etorritako goikargutzat hartzen diren goikarguei edo parekoei, toki-erakundeetako goikargutzat hartzen diren erakundeetako kideei barne. Horretarako, goikargutzat joko dira interes-gatazken arloko araudia aplikatuz halakotzat hartzen direnak.

a) Printzipio orokorrak:

1. Gardentasunez jokatu dute gai publikoak kudeatzean, eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioekin bat etorritako eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin.
2. Zerbitzu publikoaz arduratuz beteko dituzte beren eginkizunak, printzipio horien kontra doan edozein jokabide saihestuz.
3. Inpartzialtasun printzipioa errespetatuko dute, eta, beraz, interes partikular oren aurrean, irizpide independentea eta interes horrez bestekoa izango dute.
4. Beren eginkizunak betetzean, berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua ziurtatuko dute.
5. Behar besteko arretaz jokatu dute beren eginbeharra betetzean, eta kalitatea bultzatuko dute zerbitzu publikoak ematean.
6. Jokabide duina izango dute, eta herritarrak arreta bereziz tratatuko dituzte.

7. Beren erabaki eta jardueren eta zuzentzen dituzten organismoen erabaki eta jardueren erantzukizuna hartuko dute beren gain, hartara eragotzi gabe legez eska dakizkiekeen beste batzuk.

b) Jarduteko printzipioak:

1. Dedikazio osoz eta bateraezintasunak eta interes-gatazkak arautzeko araudia erabat errespetatuz beteko dute beren zeregina.

2. Beren eskumenak betetzean jakin dituzten egitate edo informazioei dagokienez, behar den zuhurtziaz jokatuko dute.

3. Arauz kanpoko jokabideren baten berri izanez gero, eskumena duten organoei jakinaraziko diete.

4. Boterea zertarako jaso duten, horretarako baino ez dituzte gauzatuko indarrean den araudiak ematen dizkieten botereak, eta interes publikoa edo administrazioen ondarea arriskuan jar dezakeen ekintzak saihestuko dituzte.

5. Ez dira beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan inplikatu, eta ez dute esku hartuko, baldin eta tartean beren objektibotasunari eragin diezaiokeen kausaren bat badago.

6. Ez dute berentzat oparirik onartuko, baldin eta opariok ohiko erabilera edo erabilera soziala edo kortesiazkoa gainditzen badute, eta ez dute onartuko abantaila-egoeraren batean eskainitako zerbitzurik edo mesederik, baldin eta horrek baldintzatu egin badezake beren eginkizunak betetzea. Garrantzi instituzional handiagoa duten oparien kasuan, dagokion administrazio publikoaren ondareari gehituko zaizkio.

7. Gardentasunez beteko dituzte beren eginkizunak.

8. Baliabide publikoak behar bezala kudeatu, babestu eta gordeko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili aplikatzekoa den araudiak onartzen dituenetatik kanpo dauden jardueretarako.

9. Ez dute Administrazioan daukaten posizioa erabiliko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.

7. artikulua- Hautagaitzak kontratatzeko eta ebaluatzeko prozeduretako eraginkortasuna eta objektibotasuna

Hautagaitzak kontratatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna, ezagutza, esperientzia, merezimendua eta errendimendua hartuko dira kontuan. Giza Baliabideen Sailak hautagaiaren arraza, generoa, adina, erlijioa eta sexu-orientazioa kontuan hartu gabe jardungo du, aukeraberdintasuna sustatze aldera.

8. artikulua- *Iruzurrezkoak izan daitezkeen jarduketak jakinaraztea*

Zumaiako Udaleko langile publiko guztiek, Kode Etikoaren urraketaren bat egin dela jakin badute edo susmo arrazoitua badute, salaketen kanal baten bitartez eman beharko dute horren berri. Era berean, ezin da ondorio negatiborik egon jakinarazpenak fede onez egiten dituzten langileen aurka.

9. artikulua- *Etika eta Jokabide Kodea*

Etika eta Jokabide Kode hau eraginkorra dela bermatzeko, Europako funtsen kudeaketarekin lotuta dauden eta funts horiekin lotutako edozein fase edo prozesutan parte hartzen duten Zumaiako Udaleko langileen artean luze-zabal hedatuko da.

10. artikulua- *Webgunearen bitartez hedatzea*

Arestian aipatutakoa gorabehera, Udalaren webgunearen bitartez ere hedatuko da, bai eta egokitzat jotako beste bide batzuetatik ere. Gainera, Next Generation EB programaren esparruan Zumaiako Udalarekin lanean arituko diren organo kudeatzaileei, kontratuen adjudikaziodunei, laguntzen erakunde onuradunei edo beste subjektu batzuei ere jakinaraziko zaie.

11. artikulua- *Berrikustea eta eguneratzea*

Etika eta Jokabide Kodea Osoko Bilkurak onetsi du 2023ko martxoaren 30ean eta agiri horren edukia aldizka berrikusiko eta eguneratuko du Osoko Bilkurak.

V. ERANSKINA - ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

Bandera gorriak balizko iruzurraren alarma-ikurrak, aztarnak edo arrastoak dira. Bandera gorria izateak ez du nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik, baina jarduera-eremu jakin batek arreta gehigarria behar duela adierazten du, iruzur potentzial bat ezesteko edo baieztatzeko.

Jarraian, bandera gorrien adibideen zerrenda ageri da, zehatza ez izan arren. Iruzurrezkoak izan daitezkeen jardunbide-moten arabera sailkatzen dira:

Iruzurra kontratueta eta kontratazio publikoan

1. Ustelkeria, eroskeriak eta legez kanpoko komisioak

Deskribapena: Eroskeria eta legez kanpoko komisioak "baliozko gauzaren" bat ematean edo jasotzean datza, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

Iruzurraren adierazleak:

- Gizarte-harreman estua dago enplegatu kontratatzaile baten eta zerbitzu-emaille edo hornitzaile baten artean.
- Enplegatu kontratatzailearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Enplegatu kontratatzaileak kanpoko negozio estali bat du.
- Kontratistak legez kanpoko komisioak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Kontratuen balioa handitzeko ohiz edo dokumenturik gabe aldaketak egiten dira.
- Enplegatu kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Enplegatu kontratatzaileak ez du interes-gatazkarik ezaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.

2. Interes-gatazka

Deskribapena: Erakunde kontratistako enplegatu batek kontratu batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

Iruzurraren adierazleak:

- Kontratista jakin batek azalpenik gabeko edo ohiz kanpoko favoritismoa du. Etengabe onartzen da lan garestia, kalitate eskasekoa, etab.
- Enplegatu kontratatzaileak ez du interes-gatazkarik ezaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.
- Badirudi enplegatu kontratatzaileak aparteko negozio bat zuzentzen duela edo lehiatzeko moduko sozietate batean lan egiten duten senideak dituela.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten arteko sozializazioa.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatuaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa.
- Lizitazioaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.
- Prozedura negoziatu bat aukeratzen da, prozedura ireki bat egin daitezkeen arren.

- Kontratazio-organoko enplegatu batek lehiaketan parte har dezakeen enpresa batentzat lan egin du, kontratazio-organoa sartu aurretik.

3. Lizitzaile baten aldeko zehaztapenak eta baldintza-agiriak

Deskribapena: Baldintza-agirik lizitzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizitzaile bakar batek bete ditzakeenak.

Iruzzurren adierazleak:

- Eskaintza bakarra edo eskaintza kopuru txikia aurkeztea, lizitaziorako hautagai gisa.
- Prozedurako agiri gidarien eta kontratista irabazlearen produktu edo zerbitzuen arteko aparteko antzekotasuna.
- Beste lizitzaile batzuen kexak.
- Aurreko antzeko prozeduretan onartutakoak baino preskripzio murriztaileagoak edo orokorragoak dituzten agiriak.
- Ezohiko klausulak edo arrazoizkoak ez diren klausulak dituzten agiriak.
- Hornitzaile berari adjudikazio-kopuru handia egitea.
- Kontratatuzaileen eta lizitzaile batzuen artean harreman pertsonalak egotea.
- Botere esleitzzaileak marka jakin baten produktu bat definitzen du produktu generiko baten ordez.

4. Kolusio-lizitazioak

Deskribapena: Eremu geografiko edo eskualde bateko edo industria-sektore jakin bateko kontratista batzuek konspiratu egiten dute lehiari aurre egiteko eta prezioak igotzeko, lizitaziorako kolusio-mekanismo desberdinen bidez.

Iruzzurren adierazleak:

- Eskaintza irabazlea garestiegia da aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, antzeko industriako obra edo zerbitzuekin edo batez bestekoekin ala merkatuko erreferentziako prezioekin alderatuta.
- Lizitzaile guztiek prezio altuak eskaintzen dituzte etengabe.
- Eskaintzen prezioak bat-batean jaisten dira lizitzaile berriek prozeduran parte hartzen dutenean.
- Adjudikaziodunak eskualdearen, lan-motaren eta obra-motaren arabera banatzen/txandatzten dira.
- Adjudikaziodunak lizitzaile galtzaileak azpikontratatzten ditu.
- Ezohiko eskaintza-ereduak (adibidez, eskaintzek beherapen-ehuneko zehatzak dituzte, eskaintza irabazlea prezio onargarrien atalasearen azpitik doi-doi dago, kontratuaren aurrekontura zehazki eskaintzen da, eskaintzen prezioak altuegiak dira, gertuegiak, oso desberdinak, zenbaki biribilak, osatugabeak, etab.).

5. Datuak filtratzea

Deskribapena: Kontratazioaz, proiektuaren diseinuaz edo eskaintzen ebaluazioaz arduratzen diren langileek isilpeko informazioa filtratzen dute, lizitatzaille bati proposamen tekniko edo finantzario bat egiten laguntzeko.

Iruzzurren adierazleak:

- Lizitazio-prozeduren kontrola eskasa da.
- Eskaintza irabazlea hurrengoaren azpitik dago.
- Eskaintza batzuk laster ireki dira.
- Eskaintza berantiarrak onartzen dira.
- Aurkeztutako azken eskaintza baxuena da.
- Eskaintza guztiak atzera botatzen dira eta kontratua berriro ateratzen da lizitaziora.

6. Aurkeztutako eskaintzak manipulatzea

Deskribapena: Kontratzioko langileek jasotako eskaintzak manipulatzen dituzte, kontratista jakin bat hautatzen dela ziurtatzeko (eskaintzak aldatuz, "galduz", zehaztapenetan ustez egindako akatsengatik baliogabetuz, etab.).

Iruzzurren adierazleak:

- Lizitatzailleen kexak.
- Kontrolik eza eta lizitazio-prozedura desegokiak.
- Eskaintzak jaso ondoren aldaketak egon direlako zantzuak.
- Akatsengatik baztertutako eskaintzak.
- Lizitatzaille gaitua, zalantzazko arrazoiengatik baztertua.
- Prozedura ez da adjudikatu gabe utzi, eta berriro deitu da, nahiz eta eskatutako gutxieneko kopurua baino eskaintza gutxiago jaso.

7. Gastua zatitzea

Deskribapena: Langile kontratatzaileek erosketa bat bi eskaera edo kontratu ala gehiagotan banatzen dute, goi-mailako zuzendarien eskumena edo berrikuspenak saihesteko.

Iruzzurren adierazleak:

